0 AURREKARIAK

BiscayTIK Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da, nazioarte mailan izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena duena, helburutzat honako hauek dituelarik: komunikazio kanal berri baten bidez, Internet bidez, Administrazioa herritarrengana hurbilaraztea bien arteko elkarrekintza erraztuz; horrez gain, Bizkaiko Udaletako barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko tresna informatikoak homogeneizatzea; eta Bizkaia informazio teknologietan eta Udal Administrazioaren ezagupenean nazioarteko erreferentzia bilakatzea.

Helburu hau betetzeko, proiektuak hiru ardatz ditu,

- Herritarrentzako posta elektroniko zerbitzua.
- Udalerrientzat programa informatikoak eta herritar bideratzea duen web ataria.
- Nazioarteko erreferentziadun Teknologia Zentro bat sortzea.

1 XEDEA

Lehiaketa honen xedea da BiscayTIK proiektuaren eremu barruan dagoen, Nominak, GGBB, Atari eta BiscayTIME-aplikazioen funtzionamendurako beharrezko lizentzien gaurkotzeen hornikuntza kontratatzea da

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Lizentzien eguneratzeak hornitzeko eskatzen diren moduluak honako hauek dira:

2.1 Eragindako moduluen deskribapena

Fundación BiscayTIK Fundazioaren proiektuaren esparruan, eragindako moduluak honakoak dira: nominak eta giza baliabideak, Atari (langilearen ataria) eta BiscayTIME (presentzia-kontrola).

Nominak eta Giza Baliabideak modulua Ginpix7 ingurunean oinarrituta dago. Bestalde, Atarik Engate du oinarri, eta BiscayTIMEk, aldiz, SaviaTIME. Horiek guztiak elkarren artean erabat integratuta daude, baita udalen eta mankomunitateen administrazio-kudeaketako plataforman (GAM) ere.

2.1.1 Nominak esta giza baliabideak

Langileak kudeatzea

Enplegatuak kudeatzeko moduluak fitxa eta datu antolatu mota desberdinetarako sarbidea proposatzen du. Sistemak bertsioen kontzeptua sartzeko aukera ematen du; horrela, erakundean enplegatutako pertsonaren lan-egoerak jasotzen dira.

Moduluaren funtzionalitateak:

- Lan-datuak.

- Datu pertsonalak.
- Espediente pertsonala.
- Lan-bertsioak sortzea.
- Kontratuak kudeatzea.
- Afiliazioaren kudeaketa. AFI fitxategiak bidaltzea.
- ABEren parteak. FDI fitxategiak bidaltzea.
- Langileen absentismoa eta oporrak kudeatzea.
- Aurrerakinen eta atxikipen judizialen kudeaketa.
- Datu ekonomikoak.
- Ziurtagiri ofizialak.
- Hirugarrenak kudeatzea.

Erakundearen egitura

Modulu honetan, Plantillari eta LPZri (Lanpostuen Zerrenda) buruz baloratutako eta baloratu gabeko txostenak kudeatzen dira. Txosten horietan, datu erantsi gisa, udalek armarria sar dezakete, bai nominaren ordainagirian, bai atera daitezkeen txostenetan.

Plaza edo lanpostu baten historia kudeaketaren hasieratik jaso eta birsortzeko aukera ematen du; horrela, dotazio, plaza edo lanpostu bakoitzaren amortizazioak edo aurrekontu-simulazioak kudeatu ahal izango dira, LPZren eta plantillaren historikoa kudeatzeaz gain.

Moduluaren funtzionalitateak:

- Plantillaren eta LPZren txostenak.
- Plazen eta lanpostuen historia.
- Organigrama sortzea.
- Okupazio-erregistroak.
- LPZtik txostenak sortzea.
- LPZtik I. kapitulua sortzea.

Aurrekontua: I. kapitulua

I. kapitulua sortzea. Simulazioak kudea daitezke antolaketa-egituran eta langileen gastuaren proiekzioan oinarrituta, aurreikuspenen arabera. Kudeaketa horretan honakoak finaktzea aurreikusten da: hirurtekoak, kategoria-aldaketak, soberakinak eta laneratzeak.

Langileen arloko fluxu ekonomikoaren kontrola eta aurrekontuaren osaeraren azterketa errazten da kostu-zentroaren edo langileen tipologiaren ikuspegitik. Bestalde, posible da aurrekontu-aurreikuspena gastu errealarekin alderatzea eta desbideratze posibleak hautematea.

Moduluaren funtzionalitateak:

- Aurrekontuak hautatzea.
- Aurrekontuetarako ordainsariak konfiguratzea.
- Txostenak.

Kontratazio zikloaren kudeaketa

Kontratazio-moduluak aukera ematen du kontratuei buruz beharrezko informazioa sortzeko. Kontratuak sor daitezke, bai eta Contrat@ren datuak ere (Estatuko Administrazio Orokorraren webgunea; on-line kontratazioaren komunikazioa errazten du).

Era berean, kontratu-ereduak sar daitezke eta mota guztietako klausula gehigarriak bil daitezke.

Moduluaren funtzionalitateak:

- Kontratu-ereduak eta luzapenak editatzea.
- Kontratuen balorazioa.
- Aurrekontu diferentzialaren jarraipena.

Sektore publikorako nominaren zikloa

Administrazio publikorako berariazko nomina-zikloaren moduluak prozesu osoa kudeatzen du, prestaketaren, kalkuluaren eta nominaren osteko kudeaketaren arabera.

Moduluaren funtzionalitateak:

- Laneko altak, bajak eta aldaketak.
- Hileko nomina, kitapenak, aparteko ordainsariak eta atzerapenak kalkulatzea.
- Banku-transferentziak, nomina, enbargoak, kuota sindikalak eta aurrerakinak sortzea.
- Nomina elektronikoaren ordainagiria bidaltzea.
- SLD fitxategiak sortzea.
- Zerga-ereduen sorrera; 111, 345, 190.
- Aurrez definitutako txostenak.
- Easy Query, txosten pertsonalizatuak.
- Kontabilitateetara egokitutako interfazeak SICAL instrukzioarekin (kontabilitate-lotura BIscayTIKekin).
- Nominaren edukia egitea.
- Aurreko hileko atzeraeraginaren gardentasuna.
- Etengabeko trebakuntzako planen plangintza eta kudeaketa.
- Aurrekontuaren jarraipena.
- Kostuen kudeaketa.

- Inkestak eta estatistikak.

Langile publikoaren garapena. EPOE, 20. art.

Langile publikoei dagokienez, programak aukera ematen du eskumenak definitzeko eta betetzen duen lanpostuak eskatzen dituen eskumenekin lotzeko. Konpetentzien direktorio bat ustiatzeko eta horietako bakoitza motaren arabera katalogatzeko aukera ematen du.

Era berean, dokumentu jakin batzuk lotzen ditu, hobekuntza-planean aurreikusitako ekintzak eta ekintza bakoitzerako beharrezkoak diren gaitasunen araberako mailak azaltzeko.

Moduluaren funtzionalitateak:

- Eskumenen katalogoaren definizioa.
- Konpetentzia-profilak. Adierazleak eta deskriptoreak.
- Online inprimakiak zabaltzea eta atzematea.
- 90º ebaluazioa eta autoebaluazioa.
- Hobekuntza-ekintzak eta horien jarraipena.

2.1.2 Atari: enplegatuaren ataria

Langilearen ataria BiscayTIKen nominen eta giza baliabideen soluzioaren parte da eta fitxaketak kudeatzen ditu; beraz, enplegatuen sinkronizazio osoa bermatzen da, sistema desberdinetan alta/baja eman beharrik ez izateko. Opor-egunei eta norberaren kontuei buruzko informazioa BiscayTIKeko nominei eta giza baliabideei buruzko moduluan zehaztuta dago, eta presentzia-kontrolak eta enplegatuaren atariak baliatzen dute. Era berean, BiscayTIKen nominaren kudeaketaren aldi baterako ezintasunei (ABE) buruzko informazioa lortzen du.

2.1.2.1 Atari: enplegatuaren ataria

Ginpix7 (Giza Baliabideak eta nomina) eta Engateren enplegatuen gunean oinarritzen da Atari. Gune horrek web-soluzio bat eskaintzen du barne-komunikazioa hobetzeko eta udal bakoitzeko langileen eta giza baliabideen arloetatik kalitatezko zerbitzua eskaintzeko.

Hainbat profil ezartzen ditu (enplegatua, arduraduna, zuzendaria eta giza baliabideak) ikusteko eta kudeatzeko aukerei erantzuteko.

- Enplegatua:
  - Pasahitzak, hizkuntza eta gunea kudeatzea.
  - Iragarki-taula kontsultatzea.
  - Eskaerak (datu pertsonalak aldatzea, helbidea, banku-kontua, onuradunak aldatzea, PFEZ).
  - Oporrak eta baimenak eskatzea (egunak, orduak).

- Jakinarazpenak.
- Edozein eskaera mota konfiguratzeko aukera.
- Enplegatuaren postontzia. Eskaeren eta jakinarazpenen egoera kontsultatzea. Egiaztagiriak deskargatzea. Dokumentuak aurkezteko aukera.
- Datu pertsonalak, laneko datuak eta familia-unitatearen datuak kontsultatzea.
- Nomina bistaratzea.
- Atxikipenen ziurtagiria sortzea.
- Lan-egutegia kontsultatzea.
- Antzinatasuna kontsultatzea.
- Aurkeztutako dokumentuak kontsultatzea.
- Organigrama.
- Erakundearen organigrama kontsultatzea.

- Arduraduna:
  - Langileen eskaerak bistaratzea, onartzea edo ukatzea.
  - Proposamenen eta jakinarazpenen egoera kontsultatzea.
  - Langileen eta arloen organigrama kontsultatzea.
  - Bere ardurapeko langileen egutegiak kontsultatzea.
  - Oporren eta baimenen saldoa, arloka.
  - Ardurak. Onarpenak eta kontsultak egiten dituen pertsona aldatzea.
  - Eskabideak kudeatzeko laguntzaileak.

- Giza baliabideak / administratzailea:
  - Eskaerak parametrizatzea.
  - Eskaerak izapidetzea.
  - Organigramak kudeatzea.
  - Absentismoa kudeatzea.
  - Iragarki-taula kudeatzea.
  - Txantiloiak eta baimenak administratzea.
  - Langileak eguneratzea.
  - Langileen, arduradunen eta zuzendarien eskaerak, jakinarazpenak eta proposamenak kudeatzea.
  - Sailak mantentzea eta arduradunak esleitzea.

- Enplegatuen baimenak eta profilak kudeatzea.
- Konfigurazio orokorrak kudeatzea.
- Arloen eta funtzioen mantentze-lanak.
- Rolak mantentzea eta arloak eta funtzioak esleitzea.
- Erabiltzaileei rola esleitzea.
- Erabiltzaileen alta masiboa.

Atari BiscayTIME-rekin integratuta dago, eta, beraz, honako aukerak ematen ditu:

- Langileen eskaerak fitxaketak aldatzeko, zehazten diren onarpen-fluxuekin.
- Fitxaketak aldatzeko eskaerak, enplegatuak hala eskatuta, zehazten diren onarpen-baldintzne arabera.
- Fitxaketak aldatzeko eskaerak onartzea/ukatzea, saileko/arloko arduradunek hala eskatuta.
- Saileko/arloko arduradun bakoitzak bere langileen fitxaketak eta gorabeherak kontsultatzea.
- Hala baimenduta, Enplegatuaren Atariaren bidez edo App-aren bidez fitxatzeko aukera, gailu mugikor bat erabiliz.

2.1.2.2 BiscayTIME: Presentzia kontrola

Presentzia kontrolatzeko modulua lantokietako langileen fitxaketak atzemateko eta kudeatzeko da, eta BiscayTIKeko nominen eta giza baliabideen kudeaketan integratuta dago.

Sistema erabat eskalagarria da, eta honako hauek denbora errealean kudeatzea ahalbidetzen du:

- Fitxaketak.
- Asistentziak, absentziak eta atzerapenak.
- Lan-absentismoa eta horren arrazoiak.
- Lan egindako orduak eta aparteko orduak.
- Hileko/urteko saldoak, enplegatuen arabera.

2.2 Eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak

Eragindako moduluak honako software hauetan oinarrituta daude:

- GGBB eta Nominak: Ginpix7
- Atari: Engate
- BiscayTIME: SaviaTime

Adjudikaziodunak eguneratutako lizentzien hornikuntza bermatu behar izango du baita ere hurrengo mantenu-zereginak:

- Prebentziozko mantentze-lanak: Sistemak eraginkortasun handienarekin funtzionatzen duela ziurtatzen dute eta ezinbesteko edo ustekabeko etenak saihesten dituzte.
- Mantentze-lan zentzatzaileak: Antzemandako akatsak berehala eta behin betiko konpontzen dituzte. BiscayTIK Fundazioak jakinarazitako akatsak ebazten dituzten bertsio berriak edo berrikusitako aplikazioak emango dira. Helburu horretarako liberatu diren bertsioak/berrikusitako aplikazioak konpondutako akatsen zerrenda adierazten duen dokumentazio zehatza izango dute.
- Mantentze-lan moldatzaileak: Aplikazioa azken erabiltzailearen beharretara etengabe egokitzen du. BiscayTIK Fundazioari bertsio berriak edo berrikusitako aplikazioak emango zaizkio iradokizun berriekin edo hobekuntza-eskaerekin (legezkoak ez). Helburu horretarako liberatu diren bertsioak/berrikusitako aplikazioak inplementatutako funtzionalitateak adierazten dituen dokumentazio zehatza izango dute.
- Eboluziozko mantentze-lanak: Sistema oso aldakorra den ingurunera egokitzen dute. Bertsio berriak edo berrikusitako aplikazioak emango zaizkio aplikazioa legezko ingurunean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko. Bertsioak/berrikusitako aplikazioak guztiz eraginkorrak izango dira legeak hala eskatzen duen momentuan.
- Euskarri-lanak: erabiltzaile-tipologia desberdinetarako euskarria

Esleipendunak zerbitzuaren prestazioa zehaztu beharko du, honako hauei dagokienez:

- - Softwarea mantentzea
- - Bezeroarentzako euskarria
- - Softwarearen bertsio berriak kudeatzea eta ematea

Aplikazioaren menú guztiak esukeraz eta erderaz egon behar dira.

3 BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa lizitatzaileek ezin izango dute hizkera sexistarik erabili, proposamenak prestatu eta aurkezteko orduan. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak ezin izango du hizkera sexistarik erabili, idatziz edo modu digitalean sortutako behin betiko edozein dokumentutan; era berean, datuak sexuaren arabera banandu beharko ditu, pertsonei buruz sortzen diren estatistika guztietan. Eta hori, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 2.3 artikuluak dioena betez, non errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten baitira.

3.1 Bermealdia

Enpresa adjudikaziodunak era egokian burutu beharko ditu kontratatu diren lanak eta horietan egon daitezkeen eta kontratuaren indarraldian jakinaraziko zaizkion akatsak zuzendu beharko ditu. Kontratuaren indarraldia amaitu ondoren bermealdiak indarrean jarraituko du gutxienez hilabete bateko epean.

Bermealdia baliagarria da BiscayTIK Fundazioko pertsonalak lanen betearazpenean edo garapenean aztertu eta berrikusi arren edo frogaketa, balorazio edo emate partzialetan onartu arren.

Enpresa adjudikaziodunaren konpromisoa da bere akatsen edo beste aplikazioen edo kanpoko esku hartzeen ondorioz ez eragindakoen funtzionaltasun ezak konpontzea eta BiscayTIK Fundaziarentzat inolako kargurik eragin gabe egitea.

3.2 Genero ikuspegia

Dagozkien proposamenak egin eta aurkezteko, enpresa lizitatzaileek hizkera ez sexista erabili beharko dute. Halaber, enpresa esleipendunak, kontratua indarrean den bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko du behin betiko dokumentu guztietan, izan idatziak edo digitalak, eta, pertsonei dagokien edozein estatistika egiteko, datuak sexuen arabera banandu beharko ditu. Hori guztia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluari jarraikiz, zeinean errespetatu beharreko printzipio orokorrak zehazten baitira.

Enpresa esleipendunak kontratuaren helburu den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, hala badagokio, txosten bat aurkeztu beharko du, kontratazioan generoak izan duen eraginari buruz, adierazleak eta datuak sexuen arabera banatuta, hala erabiltzaileenak nola onuradunenak, edo zerbitzua ematen duten langileenak, aplikatutako berdintasun-neurriak ebaluatzeko aukera izateko.

4 ARGIBIDEAK

Edozein kontsulta edo argibiderako eta eskaintzak bidaltzeko, BiscayTIK Fundazioak ondorengo helbidea jartzen du enpresa eskaintzaileen eskura:

eskaintzak@biscaytik.eus

Hala badagokio, lizitatzaileek eskatutako informazio osagarria edo pleguei nahiz dokumentazio osagarriari buruz dituzten zalantzen gaineko argibideak eskaintzak jasotzeko ezarritako eguna baino gutxienez 6 egun natural lehenago emango dira, betiere, eskaera eskaintzak jasotzeko epea amaitu baino gutxienez 8 egun natural lehenago egin bada.

Izenpetua: Alaitz Etxeandia Arteaga

BiscayTIK Fundazioko Zuzendari Nagusia